

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' ① IDAZLEA

# «Orain dela 50 urte eta egun, ia berdin pentsatzen dut»

Gudari egunean jaio zen, 1929an. Ordutik, euskararen inguruan borrokatzeaz gain, lehen lerroan jardun da politikan; euskal nobelagintzaren modernizazioan ere zeresan handia izan zuen

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

«Bakartia eta uzkur samarra» dela dio bere buruaz, baina goxoa da hizketan. Egun hauetan «gaindituta» dabil kazetarien galderei erantzuten; lehen lerroa ekarri du berriro Txillardegidatorren asteko omenaldiak. **Idazle edo politiko baino, intelektual moduan definitzen duzu zeure burua. Sartrek zioen, erradikalki pentsatzea dela intelektualaren egitekoa. Hori izan al da zure eginkizuna?** Uste dut baietz. Ni horretan Sartrearen aldekoa naiz erabat. Erradikal hitza *erro*-tik dator, eta erradikala izatea errora joatea da. Hori ez da estremista edo muturrekoa izatea. Mementu honetan esatea Espainian fronte español bat dagoela gure kontra, ez da estremismoa, egia santua esatea da.

**Omenaldia egin behar dizuten honetan, badirudi atzera begiratu beharra dagoela. Zein dira atzera begiratzear datozkizun oroitzapen nagusiak?**

Mementu gogorrena niretzat Hotel Alcalako atentatua izan zen. Orduan, HBko senadorea nintzen. Bi pistolero sartu, tiroka hasi, eta Muguruza garbitu zuten eta Esnaola zauriturik utzi. Niretzat esperientzia gogorenetakoa izan zen, izugarritzko beldurra pasatu baikeuen. Oroitzapen txarrak berehala datozkit burura, onak ezin ditut gogoratu... Lizarra-Garaziko garaia politikoki oso mementu pozgarria izan zen.

**'Euskararen aldeko borrokan', da zure liburuaren izenburua. Zure borrokan ardatza hori izan al da?**

Bai, hala uste dut. Nire ardatza, ekintza mailan, euskara izan da. Euskal Herria euskararen herria da etimologikoki ere, eta euskara gabe ez dago Euskal Herririk. Borroka politikoa ondorio bat

da. Euskara gabe Euskal Herririk ez dagoela pentsatzen dudalako sortu da planteamendu politiko bat. Euskarari indarra eman behar zaiolako, eta tresnak behar dituelako. Ni ez naiz euskaltzale bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni euskaltzale nintzen, eta euskaltzale izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara.

**Euskararen inguruan lan handia egin zara, Euskaltzaindiako urgazlerik zaharrenetakoa zara, 1957tik. Ez zara, ordea, euskaltzain izatera iritsi. Hizkuntza arrazoiengatik edo politikoengatik dela uste duzu?**

Ez dakit; berdin zait.

**Ba al duzu egun harremanik Euskaltzaindiarekin?**

Bai, harremana badut. Jasotzen ditut buletinak, eta plubikatzen dituzten gauzak askotan interesgarriak iruditzen zaizkit. Nik ez daukat ezer Euskaltzaindiaren kontra. Euskaltzain urgazlea naiz eta kito. Niretzat hor bukatu da kontua.

**Gazterik ikusi zenuen euskararen arazoa politikoa zela. Horrela ikusten al duzu egun?**

Ni umea nintzanean Franco etorri zen, eta hura, gaur PPkoak bezala, euskararen kontrakoak zen erabat; hori gauza jakina da. Ume nintzela, eskolan erabiltzen ziren Errepublikara garaiko liburuetan, azkeneko partean, euskara espainiera hiztegia zegoen. 37an Marianistekin hasi nintzanean ikasten, aipamenik ez zegoen euskararen gainean. Euskara eta Euskal Herria desagertu zituzten, Espainia besterik ez zegoen, eta Franco, Espainiaren salbatzailea. Hori ekintza politikoa izan da.

**Baina egun, alderdi politiko gehien egitasmoetan, ez da euskararen inguruko planteamendurik.**

Teorian guztiek diote *euskarari*

*bai!*. PNVk aipatzen du euskara, baina Bakion bertan ikus daiteke adibidea: *Batzokija* —j-rekin idatzia— *se convoca a los socios del Batzoki a una reunión...* hori da PNVren errealitatea gaur. Hori Bakion gertatzen bada, atzera kontuak zer gertatzen den Barakaldon edo Lizarran! Euskararen inguruko planteamendu serioak ezker abertzalearekin etorri dira. Ordura arte Telesforo Monzon edo Joseba Zubimendi bezalako batzuk egon dira, edo Ramon Labaien, baina salbuespenak dira. PNV alderdi bezala erdalduna izan da goitik behera, eta oraindik horrela da. Hori ez da insultu bat, definizio bat da.

**Literaturara etorritik, 'Leturiaren egunkari ezkutua'-rekin (1957) existentzialismoarekin eta pertsonaia literaturarekin garaiko ohiturazko nobelarekin hautsi eta euskal nobelagintza berri zenuen. Kontzienteki egin al zenuen?**

Bai, bai, jakinaren gainean egin nuen hori. Orduan euskaltzale gazteok sumatzen genuen gure errealitatea ez zela baserria. Arestik ere gauza bera esaten zuten: «Ni bilbotarra naiz, eta hemen ikusten dut fabrika eta burgesiaren zapalkuntza; ezker aldeko siderurgia». Baserritarra guretzat gauza urruna zen. Europako kezka filosofikoekin nobela hiritar bat egin behar zela ikusten nuen. Orduan Sartreko jaiera nuen, interesa, eta Unamuno existentzialista ere interesantea zen niretzat; horien bidetik, apalki, zerbait egiten saiatu nintzen. Nik garai hartan asko irakurtzen nuen literatura —orain egiten ez dudana—, eta horrela atzera ziren *Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*.

**'Peru Leartzako'-rekin ere gai metafisikoak landu zenituen. Ekialdeko**



**filosofia ekarri zenuen. Garai hartan zer harreman zegoen hemen Ekialdeko filosofiarekin?**

Sartrek zioen politikoki marxista zela baina ideologikoki ez, edo antzeko zerbait. Sartrearen existentzialismoa oso indibidualista zen, Marxi buruz oso kritikoa. Horrek guztiak nigan inportantzia handia izan zuen. Existentzialismoa budismo berri bat zela esaten zen, eta ni orduan interesatu nintzen budismoari buruz, nahiz eta ordurako gauza asko irakurri nuen Budaren inguruan. *Peru Leartzako* testu-guru horretan idatzi nuen.

**Sartrek eragin handia izan zuen zuegan, Bertrand Russell filosofo, matematikari eta bakearen borrokalariak ere bai. Zertan eragin zizun?**

Bertrand Russell niretzat oso interesantea zen. Alde batetik, fisika aldetik oso gizon jakintsua zelako, matematikaria zen. Bere jarrera politikoa ere oso interesgarria zen, Sartrearen laguna

zen. Nobel saria errefusatu zuen, esanez ez zuela berreskuratua izan nahi burgesiaren sari batekin; jarrera hori izugarri gustatu zitzaidan. Russell pazifista erradikala zen, 91 urterekin kartzelan egona. Denbora berean komunismoarekin oso kritikoa zen, ez zuen sinesten Stalinismoan, eta nik ere ez; orduan ez eta orain ere ez. Nire aita pontekoak izan ziren.

**Euskal Herrian nork eragin zizun, eta zertan?**

Krutwigek eragin zidan, baina 1951n joan egin zen Alemaniara, eta ez nuen ikusi hamar bat urtez. Garai hartan eragin zidan, baina gero ez. Batik bat, Frantziako gauzak irakurtzen nituen.

**'Leturia' Ferrolen soldaduska egiten zinela idatzi zenuen, denbora luzez bakarrik egoten zinela. 'Elsa Schelen' (1969) Belgikan bakarrik zeundela idatzi zenuen. Bakardadea beharrezko al duzu idazteko?**

**EUSKALTZALETASUNA**


«Euskaltzale izateak eraman nau, logikaz, planteamentu politiko abertzaleetara; ez alderantziz»

**LITERATURA**

«Baserritarra urruna zen. Europako kezka filosofikoekin nobela hiritarra egin beharra ikusi nuen»

**POLITIKA**

«Badut garaia distantziatik begiratzeko; 75 urterekin ez ditut gauza berriak esango»



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Nire emaztea eta nire semeak hona etortzen ziren, eta ni han gelditzen nintzen. Bakardadean pentsatu nuen *Elsa Scheelen* nobela errealista idaztea. Hura ez zen liburu sinbolista izan besteak bezala. Euskaltzaindiako Txomin Agirre saria irabazi nuen eta uste nuen ez nintzela gaizki ari; baina kritikak kristoren egurra eman zidan. Hori ez zela nobela bat egitea, ni ez nintzela nobelista... esan zidaten. Utzi egin nion idazteari hamar urte geroago arte (*Haizeaz bestaldetik*).

**Hainbeste eragin zizuten kritikek?**

Bai, bai ikaragarri, nire lagunak ziren. Mikel Lasak esan zuenean hura desastre bat zela, gogorra izan zen niretzat; Mikel Lasa nire laguna delako eta asko dakielako literaturaz.

**Defendatu zintuenik ere izan zen, Joxe Azurmendi, esaterako.**

Bai, bera izan zen bakarra, eta beharbada Lopez Adan ere bai.

Joxe Azurmendik esan zidan berak asko irakurtzen zuela eta Gunter Grass eta antzekoak ez direla errealismo magikoan mugitzen; literatura ez dela Hego Amerikakoa bakarrik. Nire alde atera zen.

**'Exkixu' ETAko militante arketipiko baten bizitzaren inguruko nobela, (1988) mito bat izan zen gazteen artean. Publiko horri zuzendua al zen?**

Gazteontzako horrela izan al zen? Ez zen bereziki gazteentzat idatzia izan. Nobela historiko bat izan zen. Ez nuen nik ia ezer asmatu, ETAko tipo hori edo oso antzeko bat ezagutu nuen.

**Literatura, hizkuntzalaritza, filosofia... zer nolako liburuak irakurtzen dituzu?**

Saioak irakurri ditut gehienbat. Orain ere zientzia liburuak interesatzen zaizkit. Aspaldi honetan astronomiari buruz asko irakurtzen dut.

**Zientziaren inguruan zer kezka duzu?**

Mundu hau zer den ulertu nahi dut. Zientziaren barruan, eboluzioaren eta astronomiaren inguruan irakurtzen dut asko.

**Jarraitzen al duzu egungo euskal literatura?**

Ez, zoritxarrez ez dut denborarik. Zoritxarra da. Soziolingustikak eta politikak denbora handia kendu didate. Orain Aralarren

inplikatu nago, baina ez naiz aparatuko gizona. Badut garaia gauza horiek distantziatik begiratzeko. 75 urterekin ez ditut gauza berriak esango hemendik aurrera. Ni gainera, nahiko pinoi finkokoa naiz, orain dela 50 urte eta gaur egun ia berdin pentsatzen dut, ez naiz aldatu. Ez euskarari buruz, ez Euskal Herriari buruz... fronte abertzalearen aldekoa izan naiz beti, Marxismo Leninismoan ez dut inoiz sinestu, Stalinismoaren kontrakoa izan naiz beti... eta orain ere hala naiz.

**Garaiak, ordea, aldatu dira.**

Bai, gauzak aldatu dira, dudarik gabe. Ekialdeko Errusia edo Sobiet batasuna esaten zenaren erorketak inportantzia izugarria izan du, nire ustez. Mende honetan egon den erlijio baten erorketa izan da. Gauzak asko aldatu dira, baina Marxista-Leninista ez izateagatik asko sufritu dut. Oraingo sindikalistak esaterako, bai ELAko eta bai LABeko gizon-emakumeak, ez dira batere ideologikoak. Gauzak aldatu dira.

**Zer harreman duzu gazte jendearekin?**

Aldea agerikoa da, baina badut harremana gazteagoekin. Zuentzat, ordea, gure garaiko kontuak historiaurrea dira; guretzat karlistadak ziren bezala.

**Kanpoan bizi izan zara, eta kanpoko ereduak jarraitu izan dituzu askotan. Orain, nora begira zaude?**

Chavezena berri ona izan da niretzat, bazen garaia eskuindarrei zerbait gaizki ateratzeko. Chirac, Berlusconi, Aznar, oraingo hau (Zapatero)... fatxa batzuk dira denak. Chavez oso ondo dago, baina Ameriketan. Chavezen mundua eta hau ez dira batere antzekoak. Ez dago guretzat eredurik, geuk asmatu beharko dugu. Hemen ezkerreko planteamendua egin behar da, baina herri industrializatu batean oinarriturik.

**Hemen bada ezkerrik?**

Beno, horri erantzun dakioke eskuina badagoen galdetuz. Eta eskuina badago, Bush eskuinda-

rra da, eta haraino joan gabe Maria San Gil eta Iturgaitz ere fatxa batzuk dira. Zer da mementu honetan ezkerrean egotea? Klase sindikatuak hortxe daude, eta klase sindikatu abertzaleak, ELA eta LAB, niretzat erreferentzia dira. Ni ezker abertzalean nago. Aralarren nago, eta ez nago Herri Batasunan, lehen egon nintzen bezala, ETA hor dagoelako; eta, nire ustez, ETA mementu honetan kaltegarria delako.

**Lanean jarraitzea errealtatearekiko lotura ez galtzeko bidea dela diozu. Gizakiaren atzean dauden oinarrizko kezken inguruan 'Horretaz' liburua prestatzen ari zara. Zertan zabilte?**

Nire lana, Alfonso Sastrek dioen bezala, artikulua eta liburuak idaztea da. *Huntaz eta hartaz* egin nuen lehen, eta orain falta zena: *Horretaz*. Bost saiakera labur izango dira, giza egoeraz eta patuaz egin daitezkeen galdera funtsezkoen inguruan.

**Fonologiaren inguruan ere lanean jarraitzen duzu.**

Akustika betidanik interesatu zait, agian fisika delako, eta fonetika ere bai. Nik tesia azentuaren inguruan egin nuen. Euskarak ez daukala azenturik esaten da, eta gaztelaniak bai. Jendeak erdarazko fonologiarekin hitz egiten du euskaraz. Euskaldun berriek ezin dute belarriz ikasi euskal azentua. Orain bertsolariak aztertzen ari naiz fonologia aldetik, silabifikazio aldetik. Horretan euskara desastre bat da. Politikoki esaten dugu geure burua suspertu nahi dugula, baina euskararen gainean ez dugu gauza bera pentsatzen.

**Pianoa jotzeko denborarik ba al duzu?**

Denbora bai, baina pianoa pisu batean jotzeak lotsa ematen dit. Ez naiz ausartzen. Baserrian askoz ere gehiago jotzen nuen pianoa. Chopinen balsak eta Debussy jo izan ditut. Askok gustatzen zait. Gauza bat dela eta bestea dela, bizpahiru urte badi-ra pianorik jotzen ez dudala, baina nahi nuke piska bat errekupe-ratu.

**UEUren GRADUONDOKOEN ESKAINTZA 2004-2005****Berezko tituluak (EHUK balioztatuta)**

Espezialista titulua:

✓ *Hizkuntza-teknologiak (HIZTEK)*

✓ *Estatistika eta Konputazioa*

Master titulua:

✓ *Hizkuntza-teknologiak (HIZTEK)*

**Doktorego programak (EHUK antolatuta)**

✓ *Euskal Herria XXI*

✓ *Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua*

Izen ematea irailaren 15erarte! |

Informazio gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org) / 943 82 14 26/ [titulazioak@ueu.org](mailto:titulazioak@ueu.org)